

HEZKUNTZA-PROPOSAMENA

2018
2019
KURTSOA



ELKARTASUNAREN ALDEKO HEZITZAILEAK

AHOLKULARITZA, PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA

Neurrira diseinatutako prestakuntza

Prestakuntza-proposamenak neurrira, ikastetxe edo elkarte bakoitzera egokituta, diseinatzeko zerbitzua. Gaiak: kulturartekotasuna, hezkidetzaren hiritartasun globala, parte hartzea, gatazken kudeaketa, kontsumo arduratsua eta ingurumena, etab.

Parte hartzearen bidean...

- Irakaslan hobetzeko eta zure ikasleak aldatetaren parte izan daitezela lortzeko prestakuntza ibilbide batean parte hartzea, beste hezitzaileekin batera, gonbidatzen zaitugu.
- 5-6 saioko prestakuntza 18-19 ikasturtean zehar.
 - Murgiltze-esperientzia bat, Kolonbiako Fe y Alegríaren zentroetan abian dauden gizarte-eraldaketarako partaidetza-proposamenak ezagutzeko.
 - Inplementazio plangintza pertsonal bat egiteko laguntza. Interesatuta baldin bazaude, gurekin harremanetan jar zaitez!

PROPOSAMEN PEDAGOGIKO BERRITZAILEAK

Ezagutu, sentitu eta mobilizatu zaitez pertsona errefuxiatuen alde!

Mugetatik haratago gure kulturartekotasun testuingurua, lekualdatze behartuen prozesuak eta errefuxiatuen errealitatea ezagutzeko hezkuntza-proposamena da. Ikastetxeei zuzenduta, bigarren hezkuntzan lantzeko, proposamen honek 4 dimentsio landu nahi ditu:

- **Irakaslearen trebakuntza**, kulturartekotasun, migrazio eta lekualdatze behartuen ingurukoa.
- **Ikasleentzako bizipen-ikaskuntza**, pertsona errefuxiatuen eta migratzaileen errealitateara hurbiltzeko: 3 eguneko egonaldia Loiolan (plaza mugatuak).
- **Hezkuntza komunitatearen inplikazioa**, sensibilizazio eta mobilizazio ekintzetan.
- Nahi duten ikastetxeentzat, **kultur arteko hezkuntza** zeharkakotzeko laguntza, haur hezkuntzatik batxilergora doan hezkuntza proposamenaren bitartez (proiektuetan oinarritutako ikaskuntza DBH eta batxilergorako).

Mugetatik Haratago- Hezkuntza Ez Formala:

Hezkuntza ez formaleko talde batetan baldin bazaude eta Loiolako esperientzia bizi nahi baldin baduzu, pertsona helduei zein asialdiko, eskaut... taldeei egokitutako asteburuetan egiteko proposamena daukagu. Gurekin harremanetan jarri informazio gehiago nahi izanez gero!

Hezkidetzaren bidean...

Ikastetxeentzako hezkidetzaren autodiagnostikoak eta planak aurrera eramateko laguntza.

Hezkidetzaren hezi, berdintasunean hazi:

hezkidetzaren hezkuntza maila guztietan lantzeko proposamen pedagogikoa.

Eremu formalerako zein ez-formalerako erabili daitezke. Gida liburua, posterrak eta familiekin lan egiteko "rit" batez osatuta.

KANPAINAK

Gatazkarik Gabeko Teknologia

Teknologia kontsumoa, ingurugiroaren hondamena eta lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeetan (Kongoko Errepublika Demokratikoa, Honduras, Kolonbia, etab.) ematen diren **giza eskubideen urraketa**ren arteko erlazioa nabarmentzen du. Era berean, **aldaketaren aldeko mobilizazio proposamenak** eskaintzen ditu. Materialak eta formazioa gelan, zure elkartearekin edo zure taldearekin lan egiteko: fitxak, bideoak, posterrak, bideojokoak...

www.tecnologialibredeconflicto.org/eu

SAREAK

Beste pertsonekin, elkarteekin eta ikastetxeekin elkartasun-sareak sustatzen ditugu, hezkuntza arloan elkarlanerako espazioak eratzeko.

EDUKALBOAN

Hiritartasun globala sustatuko duen hezkuntza eraldatzaile baten aldeko hezitzaileen sarea.

www.edukalboan.alboan.org/eu

ALBOAN Gazte Sarea

Hiritartasun globala eta aldaketa soziala sustatzeko gazte taldeen eta elkarten sarea.

Jarraitu Facebookean:

<http://bit.ly/red-jovenes-alboan>

ERAKUSKETAK

Eraman ezazu gure erakusketaren bat, bere proposamen didaktikoarekin, zure ikastetxean, elkarteetan edo taldeetan lan egiteko:

- **Toki bat munduan:** Inor ez bere etxea ustera behartuta. Erakusketak pertsona errefuxiatu eta migratzaileen errealitatea ezagutzeko ibilbidea proposatzen digu.
- **Zure mugikorrek ezkatzen duena:** orain 20 minutuko iraupena duen audiogida eskuragarri dago: <http://exposiciontlc.tecnologialibredeconflicto.org/eu/>
- **Stand By:** Argazkiek Libanon eta Grezian Errefuxiatuen Aldeko Jesuiten Zerbitzuak lagundutako pertsona errefuxiatuen egunerokotasuna isladatzen dute.

HEZKUNTZA BALIABIDEAK ON-LINE

Eraldaketa sozialerako hainbat baliabide eta hezkuntza materialak, click bakar batean!

Hezkuntza materialen webgunea: www.educacion.alboan.org/eu
Baliabide Zentroa: centroderecursos.alboan.org/eu

INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio gehiago jaso nahi baduzu, edota zure ikastetxe, elkarte edo talderako proposamen pertsonalizatua diseinatzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin kontaktuan!
educacion@alboan.org

Bizkaia: 944 151135 Gipuzkoa: 943 275 173
Nafarroa eta Araba: 948 231302